

# ELEFANTIXURI

LA ELEFANTA BLANCA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia / Edición: 1.a abuztua 2015 / 1<sup>a</sup> agosto 2015

Ale kopurua / Tirada: 500 ale / ejemplares

© Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Administración de la Comunidad Autónoma Vasca,  
Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura

Argitaratzailea / Edita:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskarazko itzulpena / Traducción al euskera: **Pako Eizagirre**

Dokumentazioa eta gainbegiratzea / Documentación y supervisión:  
**Ainhoa Zabaleta. Pediatra neumologoa. Loiola Osasun Zentroa - Donostia**  
Pediatra neumóloga. Centro de Salud Loiola - Donostia-San Sebastián

Diseinu grafikoa / Diseño gráfico: **Miren Unzurrunzaga Schmitz**

Inprimaketa / Impresión: **Graficas Lizarra, S.L.**

Lege gordailua / Depósito legal: VI-664/2015



# ELEFANTIXURI

LA ELEFANTA BLANCA



Testuak / Textos: [Ana García de Motiloa](#)

Irudiak / Ilustraciones: [Raquel Gonzalo](#)

Esker bereziak  
Agradecimiento especial a  
Maialen Gonzalo



ASMA duten ume guztientzat

Para todos los niños y niñas que padecen ASMA

Udaberriko arratsalde bat zen.

Makalen eta zumarren haziak hauts zurixkaz jantzirik zeuden, eta alaiki zebiltzan hegan, hara eta hona. Beraien lehengusinak zituzten lagun, «txikoria-belar» izeneko lorearen haziak.

Parkean zegoen Elefantxuri, eta ikusmin handiz begiratzen zien hauts zurixka haiei. Amarengana hurbildu, eta esan zion:

—Ama, ama! Elurra ari du!

—Ez, alabatxo, ez! Aire zabalean dabiltzan horiek haziak dira  
—erantzun zion Mariamak, elefante amak.

Era una tarde de primavera.

Las semillas de los chopos y de los álamos se habían puesto su camiseta de pelusas y volaban alegres por el aire.

Les acompañaban sus primas, las semillas de una flor llamada «diente de león».

Desde el parque, la elefanta Blanca les miraba con curiosidad. Fue hasta donde estaba su mamá y le dijo:

—Mamá, mamá, está nevando.

—No, hija, —le respondió su madre, la elefanta Santa—  
son semillas que se mueven por el aire.



Mariamaren alabari Elefantxuri jarri zioten izena. Izan ere, jaio zenean bere kolorea ez baitzen ez grisa, ez arrea. Zuria zen, zuri-zuria, hartz-zuri batena bezalakoa.

Begiak urdinak zituen, eta urre koloreko betileak.

Bustitzen zenean arrosa kolorea hartzen zuen Elefantxurik. Halakoetan, amak auzoko batek ekarri ohi zion krema suabea ematen zion gorputzean.

Auzoko hura heziera oneko hipopotamo bat zen, Faustino izenekoa. Berak egiten zuen krema hura, oihanean biltzen zituen sendabelarrak erabilita. Faustinek kiosko bat zuen, eta denetarik saltzen zuen kiosko txiki hartan.

La elefanta Blanca se llamaba así porque cuando nació no era gris o de color pardo como los demás elefantes.

Era blanca, muy blanca, como una osa polar.

Sus ojos eran azules y las pestañas muy rubias.

Cuando se mojaba, se volvía de color rosa y entonces su mamá le ponía una crema muy suave que se la traía su vecino, un hipopótamo muy educado que se llamaba Faustino. Él mismo hacía esta crema con plantas medicinales que cogía por la selva.

Tenía un quiosco donde vendía de todo un poco.



Elefantxurik parkean jarraitzen zuen zerura begira, eta, bat-batean, hauts zurixka haiek bere sudur luzearen gainean pausatu ziren, ilaran, suabe-suabe.

—Atxiss! —egin zuen doministiku Elefantxurik, eta hauts zurixka haiek, izaturik, alde egin zuten handik, eta biribil bat osatu zuten zume negarti baten inguruan.

Benetan negarti hutsa zen zume hura. Izan ere, hauts zurixkaz betetzen zenean, pozaren pozez egiten zuen negar, eta, hauts haiek urruntzen zirenean, penaz egiten zuen negar.

La elefanta seguía mirando al cielo cuando, de repente, unas suaves pelusillas se pusieron en fila sobre su larga nariz y Blanca comenzó a...

—Atchís —estornudó— y las pelusas se fueron muy asustadas de allí a formar un corro sobre un sauce llorón.

Realmente este árbol era muy llorón, cuando se llenaba de pelusillas, lloraba de alegría y cuando se iban de allí, lloraba de pena.



Elefantxuri etengabe ari zen doministikuka. Begiak gorri-gorri jarri zitzaizkion, eta sudurrak iturriko kanila zirudien, tantak isurtzen baitzitzaizkion gelditu gabe. Eta, gainera, asko kostatzen zitzaion arnasa hartzea.

Ama Mariama oso kezkatuta zegoen, eta oihaneko animalien ospitalera eraman zuen alaba txikia.

Jirafa bat zen ospitaleko medikua, izenez Fermina eta izatez oso atsegina. Eta Ferminarekin batera, hantxe ari zen lanean Katalina erizaina, polita eta fina.

Zenbait egunetan, Ferminak zapi koloretsuak jartzen zituen bere lepo luzean, batzuetan lorez beteak.

Blanca no dejaba de estornudar, sus ojos se pusieron rojos y su nariz parecía un grifo goteando sin parar. Además, le costaba respirar.

Su mamá, un poco preocupada, la llevó al hospital de los animales de la selva.

Allí había una médica jirafa muy simpática que se llamaba Paca. A su lado estaba Ramona, una enfermera muy mona.

Algunos días, Paca se ponía en su cuello largos pañuelos de colores, a veces llenos de flores.



HOSPITAL

Elefantxuriren amak, Mariamak, berehala kontatu zion Fermina medikuari hauts zurixka haiekin parkean zer gertatu zitzaien.

Alabak, burua mugituz, «bai, bai, bai» adierazten zuen, asko kostatzen zitzaiola arnasa hartzea, eta ia ezin zuela hitz egin. Haren belarri handiak astiro-astiro eta emeki-emeki mugitzen ziren, esaten ari zena ziurtatu nahi balu bezala.

Handik gutxira, Katalina erizainak zerbait jarri zion belarri handi haietako batean. Pintza bat zen, eta marrubi bat bezain gorri jarri zen tresna hura. Belarritako argitsu bat zirudien. Elefantxurik arnasten zuen oxigenoa ea odolerraino ondo iristen zen neurtzen zuen gailu hark.

La mamá de Blanca, la elefanta Santa, le contó a Paca lo que había sucedido en el parque.

Blanca decía «sí, sí, sí», moviendo la cabeza pues le costaba hablar y casi no podía respirar.

Sus grandes orejas también se movían con suavidad.

Poco después, la enfermera Ramona le colocó algo en una de sus orejas.

Era una pinza que se ponía roja como una fresa.

Parecía un pendiente iluminado y servía para ver si el oxígeno que respiraba Blanca llegaba bien a la sangre.



Ferminak, proba hura bukatu ondoren, hartu zuen mahai gainetik Fonendo Jauna eta Elefantxuriren arnasketa entzuten hasi zen, bular aldean aurrena eta bizkar aldean geroxeago.

Adi-adi entzuten egon eta gero, Fonendo Jauna honela mintzatu zitzaien

Fermina medikuari eta Katalina erizainari, oso modu atseginean:

—Lagunak, hor barruan, aireak abesti bat txistukatzen du, «txiruriruri» edo antzeko zerbait.

—Egia da, Fonendo Jauna! Nik ere entzun dut —esan zion Ferminak, serio-serio jarrita.

Geroxeago, atera zuen bere belarrietatik Fonendo Jauna, eta lepotik zintzilik utzi zuen atsedean har zezan. Koilare bat zirudien gailu hark.

A continuación, Paca comenzó a escuchar por el pecho y por la espalda de Blanca, ayudada por Don Mendo Fonendo.


Después de un ratito de escucha, el simpático fonendo les dijo a la médica jirafa y a la enfermera Ramona:

—Chicas, ahí dentro, el aire está silbando una canción, algo así como «tararí tararó».

—Sí, Don Mendo, gracias, lo he escuchado —le dijo Paca poniéndose un poco seria.

Después se sacó a Don Mendo de sus oídos y se lo dejó colgado en su cuello para que descansara un poco.

Don Mendo Fonendo parecía un collar.



Ondoren, arnasa errazago hartzen laguntzeko, Ferminak motots antzeko bat egin zion Elefantxuriri tronpan, eta maskara bat jarri zion bertan. Hala, errazago hartuko zuen arnasa, maskarari esker hartzen baitzuen oxigenoa eta botika.


Handik denbora batera, kendu zion maskara, askatu zion tronpa, eta Elefantxurirekin hizketan hasi zen Fermina, burua makurtuta.

Mariama amak adi-adi entzuten zuen, belarri handi haiek zabal-zabal eginda.

Para ayudar a respirar mejor a Blanca, Paca le hizo una especie de moño con la trompa y le colocó una mascarilla. De esa manera, Blanca podía respirar mejor pues por la mascarilla recibía oxígeno y medicación.

Pasado un tiempo, la jirafa Paca le quitó la mascarilla a Blanca, le desenrolló la trompa y comenzó a hablar con ella bajando la cabeza.

Su mamá le escuchaba atenta, con las orejas muy abiertas.



Hitz hauekin azaldu zion egoera Ferminak:

—Irudika ezazu leiho bat duzula zure bularrean. Irekitzen baduzu, adar hustu baten antzeko zerbait ikusiko duzu, hodi baten antzekoa.

Adar honen alde batetik bi adaxka ateratzen dira, bronkioak izenekoak. Eta bronkioetatik bi orri oso handi daude zintzilik, birikak.

Adar horiek guztiak oso izaki dotoreak dira, eraztunez beteak.


Elefantxurik arreta handiz begiratzen zion medikuari. Haren begiek bi eguzki handi eta urdin ematen zuten, eta haren betile horailek eguzkien printzak ziruditen.

—Imagina que tienes una ventana en tu pecho —le dijo—, si la abres, podrás ver una especie de rama hueca por dentro, como un tubo.

Del final de esa rama salen otras dos ramitas que se llaman bronquios y de ellas cuelgan algo parecido a dos hojas muy grandes que son los pulmones.

Todas estas ramas son muy presumidas pues están llenas de anillos.

Blanca miraba a la médica jirafa con curiosidad, sus ojos parecían dos grandes soles azules con los rayos que formaban sus pestañas rubias.



Pulmón

Tráquea

Bronquio

Bronquiolos

Alvéolos

Ferminak bere azalpenarekin jarraitu zuen:

—Ahotik sartzen den airea oxigenoz kargatuta dago. Oxigeno hori adar loditik, trakeatik, pasa eta bi adar txikiagotara, bronkioetara, iristen da.

Eta bronkioek beste adaska txikiago batzuetara, bronkioloetara, eramaten dute.

Eta bronkiolo horiek albeoloak izeneko poltsatxo batzuetan sartzen dute oxigenoa. Mahats-mordoa osatzen duten aletxoak bezalakoak dira albeolo horiek.


Albeoloak oso langile apartak dira: batetik, barrura sartzen duzun airea odolera eramaten dute, eta, bestetik, barrukoa hartu eta sudurretik edota ahotik kanporatzen laguntzen dute.

Paca siguió con su explicación:

—El aire que entra por la boca viaja cargado de oxígeno y va desde la rama grande, la tráquea, hasta las dos ramas más pequeñas, los bronquios y de ahí a otras más pequeñas aún que son los bronquiolos.

Estos lo meten en unas bolsitas llamadas alvéolos que son como unos granitos de uva que forman racimos.

Los alvéolos son muy trabajadores pues se encargan de llevar a la sangre el aire que entra dentro de ti y de recoger el aire que sale para que se vaya fuera por la nariz o por la boca.



ENTRADA

SALIDA

Erne-erne entzutzen zion Elefantxurik Ferminari, nahiz eta tarteka doministikuren bat egin.

Azalpen gehiagorekin jarraitu zuen Fermina jirafak:

—Batuetan, bronkioetako adaxkak, bronkioloak, itxi egiten dira apurtxo bat, eta aireak zailtasunak izaten ditu orri handietara, alegia, biriketara iristeko.

Arazoa konpontzeko badira medikamenduak ahotik arnastu behar dituzunak, alegia, airea hartzen duzunean bezala barruratu behar dituzunak.


Airea bronkioetara errazago sartzen laguntzen duten izaki ongileak dira medikamenduak.

Blanca seguía escuchando atentamente, aunque de vez en cuando estornudaba. Paca, la jirafa, prosiguió:

—A veces, las ramitas de los bronquios se cierran un poco y el aire pasa con dificultad a las hojas grandes, es decir, a los pulmones.

Para solucionar este problema existen unos medicamentos que tú tendrás que inhalar por la boca, es decir meterlos hacia dentro como cuando coges aire.

Ellos son como unos personajes buenos que ayudarán a los bronquios a que se abran para que el aire pueda pasar.



—Eta, zergatik gertatzen zait hau niri?

—Alergeno izeneko substantzia batzuegatik izan liteke. Izen desberdinak dituzte alergenok: polena edo lore-hautsa, akaroak, onddoak, ezkatak eta abere batzuen ilearen zahia.


Substantzia horiek izaki inbasore gisa jokatzeko dute, eta bronkioak itxiarazten dituzte airea doan bidean sartzen direnean.

Ondorioz, airea ezin da biriketara iritsi. Gertakari honi asma deitzen diogu —esan zuen Feminak. Eta zera gehitu zuen:

—Y ¿por qué me pasa esto? —preguntó la elefanta Blanca a la jirafa Paca.

—Puede ser debido a unas sustancias que se llaman alérgenos y que tienen diferentes nombres: polen, ácaros, hongos, escamas o caspa del pelo de algunos animales...

Estas sustancias son como unos personajes invasores, cuando entran por el camino que recorre el aire, hacen que los bronquios se cierren. Así el aire no puede pasar a los pulmones. A esto le llamamos asma —continuó diciendo Paca. Y añadió:



—Baliteke zuk polenari edo beste substantzia bati alergia izatea. Ziurtasunez jakiteko, proba batzuk egin behar ditugu, batere minik egiten ez duten probak. Horretaz aparte, hodi batetik putz egin beharko duzu gogor, puxika bat puztuko bazenu bezala. Oso dibertigarria da.

—Eta ospitalean gelditu beharko al dut? —galdetu zuen Elefantxurik jakin-minez.

—Gaur ez, zuk arnasa zailtasunik gabe hartzea lortu dugu eta! —erantzun zion Ferminak, irribarre gozoa eskaintzen zion bitartean—. Batzuetan ez dugu lortzen, eta, orduan, egun gutxi batzuk oihaneko ospitalean pasa behar izaten dituzue. Oso ondo zainduta egongo zarete ospitalean.

—Puede que tengas alergia al polen o a otras sustancias. Para saberlo te tenemos que hacer unas pruebas que no duelen nada. También tendrás que soplar muy fuerte por un tubo como si inflaras un globo. Es divertido.

—¿Tendré que quedarme en el hospital? —preguntó Blanca con curiosidad.

—Hoy no, porque hemos conseguido que respires sin dificultad —le respondió Paca con una gran sonrisa dibujada en su cara—. A veces no lo conseguimos y entonces os tenéis que quedar unos pocos días en el hospital de la selva. En él estaréis muy bien cuidados.



Mariama amak eskerrik beroenak eman zizkien Fermina jirafari, Fonendo Jaunari eta Katalina erizainari, hain ongi zaindu eta hain ongi sendatu zutelako elefante txikia.

Elefantxurik ere musutxo bana eman zien bere tronpatxoarekin esker ona adieraziz.

Handik gutxira, elkar agurtu eta etxera joan ziren atsedean hartzera.

La elefanta Santa dio las gracias a la médica Paca, a Don Mendo Fonendo y a la enfermera Ramona por lo bien que habían cuidado y curado a la pequeña elefanta.

Blanca también les mostró su agradecimiento dándoles un beso con su trompa.

Poco después se despidieron y se fueron a casa a descansar.



Faustinoren kiosko aurretik igaro zenean, Mariama elefanteak arandanoz eta masustaz egindako gailetak erosi zituen. Ah!, eta ez pentsa ahaztu zitzaionik krema miraritsu hura erostea! Izan ere, etxean edukitzea gustatzen zitzaion, Elefantxuri alabari arrosa koloreko azala jartzen zitzaionerako.

Al pasar por el quiosco de Faustino, la elefanta Santa compró unas galletas hechas con arándanos y moras y una piruleta de frambuesa, sin olvidarse de la crema milagrosa que ponía a Blanca cuando se volvía rosa.

